

## Eskoriatzako Herria III. Ikerketa Beka

“1839tik aurrera argazkilaritza presente izan da giza  
jarduera ia guztietan. Hori dela eta, gizakiaren historiaren  
bi mendeko testigantza dokumental garrantzitsuen eta zehatzenetako bat da argazkia,  
eta horregatik  
gure **oroimenaren** iturri agortezina bilakatu da”

**Eskoriatzako Udalak herriaren iraganaz, orainaz eta etorkizunaz arduraturik, ESKORIATZAKO HERRIA III. IKERKETA BEKARAKO deia egingo du, Eskoriatzako herriaren argazki zaharrak gaitzat hartuta.**

**1. Bekaren ezaugarriak**

**1.1.- Bekaren helburua.**

Eskoriatzako Herria III. ikerketa beka honen helburua argazkien bidez herriko historiari buruzko ikerketa sustatzen jarraitzea da, ikerketa horren ardatz bi alderdi hartuz: batetik, antzinako lanbideak eta industrializazioaren hasiera Eskoriatzan; eta, bestetik, Eskoriatzako herriguneko etxeak XX. mendeko lehen herenean bereziki. Lan horrekin jarraipena eman nahi zaio orain arte egindako lanari, udal webgunean “Eskoriatza iruditan” izenarekin argitaratuta dagoena.

**1.2.- Edukia.**

Bekadunak egin beharreko lanak ondorengo baldintzak bete beharko ditu:

- Udalak ezarritako dokumentazio, sailkapen eta inbentario irizpideak jarraitu beharko dira.
- Gutxienez, Eskoriatzako 300 argazki jaso beharko ditu. Argazkiak antzinakoak izan beharko dira, batez ere, XX. mende hasierakoak eta 60/70 hamarkadetara artekoak.
- Edozein motako argazkiak jaso ahal izan arren, ahalegin berezia egingo da Eskoriatzako historiako arlo honetakoak jasotzeko: lanbideak, industrien sorrerak, merkataritza eta herriguneko etxeak.
- Multimedia aplikazio informatiko baten bitartez, bildutako materialari buruzko informazioa digitalizatu eta datu-basean sartzea. Argazkiak eskaneatu, sailkatu, artxibatu, dokumentatu eta egun dagoen artxiboan gorde beharko dira Udalak ezarritako irizpideen arabera.
- Herriguneko etxeetako argazki esanguratsuenekin erakusketa bat prestatu beharko da 2014ko San Pedro jaietarako.

**1.3.- Hizkuntza**

Lana euskaraz eta gazteleraz egin beharko da.

**1.4.- Bekaren zenbatekoa**

Bekaren zenbatekoa 3.000 € da, eta horren barruan erantzukizun zibileko aseguru eta istripu aseguru-poliza izenpetzea egongo dira.

**1.5.- Dedikazioa eta iraupena**

Lana egiteko epea 6 hilabetekoa izango da beka esleitzen den egunetik hasita, eta egunero, gutxienez, lau ordu eskaini beharko zaizkio lanari.

Kultur Etxean espazio fisiko bat eta hainbat material (ordenagailua, eskanerra...) izango du bekadunak bulego lana landa lanarekin batera egin ahal izateko.

## 2. ESKATZAILEAK

2.1. Beka norbanakoek nahiz horretarako osatutako lan taldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu horretan, proiektuaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da, eta bera izango da taldearen ordezkaria Udalaren aurrean.

2.2. Beka hartzailea gai izan beharko da lana EAEko bi hizkuntza ofizialetan egiteko.

2.3. Norbanakoa izanez gero, Eskoriatzan erroldatuta egon beharko da, eta taldea bada, kide guztiak Eskoriatzan erroldatuta egon beharko dira 2013ko abenduaren 31 baino lehenagotik

2.4. 18 eta 30 urte bitarteko adina izatea.

2.5. Eskatzaileek Diru laguntzen 38/2003 Lege orokorreko 14. artikuluan jasotako betebeharrak guztiak bete beharko dituzte.

Ezingo dute diru laguntzarik jaso indarrean dagoen araudiaren arabera eskubide hori mugatuta edo galduta dutenek. Era berean, epai irmo bidez diru laguntzak jasotzeko eskubidea galdu dutenek ezingo dute diru laguntzarik jaso epaian adierazitako epean.

## 3. ESKABIDEAK

Eskoriatzako Alkateari zuzendutako eskabide-orriarekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dituzte interesatuek:

3.1. Curriculum Vitae.

3.2. Lana nola burutuko duten adierazteko memoria bat, gehienez 5 orrikoa, ahalik eta zehatzen ondokoak azalduz:

- Argazkiak lortzeko kontaktuak nola egingo dituen.
- Datuak jasotzeko erabiliko duen metodologia (nola kopian, eskaneatu eta dokumentatuko dituen argazkiak).
- Dituen bitartekoak eta baliabideak.

3.3 Eskatzaileen nortasun agiriaren fotokopia bat.

3.4. Eskatzaileek 2.2 puntuan jartzen duena betetzen dutela egiaztatzeko agiria. Halakorik ezean zinpeko agiria.

3.5. Argazki zahar bat aurkeztu beharko da (ez du axola Eskoriatzako izatea edo ez) orri batean fotokopiatuta berorren deskripzioarekin gazteleraz eta euskaraz.

Beka eskaera egiterakoan, eskatzaileak aitortzen du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta oinarriak osorik onartzen dituela. Era berean, adierazten du eskaeran jasotako datu pertsonalak bere onspenarekin jaso direla, datu horiei tratamendu automatizatu emateko eta Eskoriatzako Udalak behar bezala baimenduta dituen fitxategietan gordetzeko baimena ematen duela; eta datu horien erabilera bakar-bakarrik udal kudeaketarako erabiltzeko baimena ematen duela, Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitako kasuetan beste administrazio edo hirugarrenei laga edo komunikatu ahal izango direlarik.

Eskabideak, gainerako agiriak eta geroago egon daitezkeen gutunak honako helbidera bidaliko dira:

Eskoriatzako Udala

Kultura Zerbitzua

Hidalga, 1

20540 ESKORIATZA

#### 4. DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak eta gainontzeko agiriak otsailaren 24tik martxoaren 10a arte, biak barne, aurkeztu ahal izango dira udaletxeko harreran, 9:00etatik 14:30era. Eskatutako zerbait betetzen ez duen eskaerarik edo agiririk jasotzen bada, Ebaluazio Batzordeak interesdunei dei egingo die akatsak zuzen ditzaten edo behar diren agiriak aurkez ditzaten. Akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko 3 eguneko epea izango da. Eskatutakoa bete ezean, eskabideak artxibatu egingo dira besterik gabe.

#### 5. ESLEIPEN PROZEDURA

Beka hau Eskoriatzako Alkateak esleituko du ebaluazio batzordearen proposamena jaso ondoren.

##### 4.1.- Ebaluazio batzordea honako hauek osatuko dute:

Epaimahaiburua:

- Jose Angel Petralanda, Kultura batzordeburua.

Epaimahaikideak:

- Igor Ezpeleta, Kirola saileko zinegotzi arduraduna.
- Mari Carmen Arrieta, euskara teknikaria.

Idazkaria:

- Arantxa Unzueta, kultura teknikaria.

##### 4.2. Esleipen irizpideak honako hauek izango dira:

- Eskatzailearen curriculum: 10 puntu
- Aurkeztutako memoria: 30 puntu

Behar izanez gero, hautagaiak elkarrizketatu ahal izango ditu epaimahaiak.

Eskatzaileek ez badituzte betetzen gutxienerako baldintzak, epaimahaiak beka eman gabe utzi ahal izango du. Era berean, eta betiere, gutxienerako betebeharrak betez gero, ordezkioak izendatu ahal izango ditu epaimahaiak. Bekadunak bekari uko egingez gero, edo beste arrazoiren batengatik beka galdu, ordezkioak jasoko luke beka epaimahaiak ezarritako ordezkioen hurrenkerari jarraituz.

#### 6. BEKADUNEN BETEBEHARRAK

6.1. Beka onartzen duela idatziz adieraztea esleipen egunetik hasita 7 eguneko epean.

6.2. Lanean hasi eta 3 hilabetera txosten bat aurkeztea lana nola doan adierazteko.

6.3. San Pedro jaietarako erakusketa prestatzea bere lana gainbegiratzeko izendatuko den pertsonak emandako irizpideen arabera eta berarekin elkarlanean.

6.4. Eskoriatzako Udalaren esku uztea egindako lanaren ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.

6.5. Hasierako planean edo taldean aldaketaren bat izanez gero, horren berri ematea. Dena dela, ezin izango da horrelakorik egin Eskoriatzako Udalaren baimenik gabe.

6.6. Bekaren amaieran lanaren emaitzak aurkeztea. Lana euskarri digitalean entregatu beharko da.

6.7. Ikerlana epean entregatzen ez bada justifikazio edo gairiditu ezinezko arrazoirik gabe, zigorra jarri ahal izango da. Dagokion espedientea ireki eta gero, hil bakoitzeko atzerapenarengatik bekaren % 6,25eko murrizketa egin ahal izango zaio.

#### 7.- UDALAREN BETEBEHARRAK

7.1. Udalak arduradun bat izendatuko du lanaren jarraipena egiteko, eta, bestea beste, bere ardura izango da beharrezko txostenak egitea.

7.2. Udalak beharrezko baliabideak jarriko ditu lana egin ahal izateko (bulegoa, ordenagailua, eskanerra...)

## **8.- ORDAINKETA**

Ordainketa honela egingo da:

- %40a, beka esleituta, hura onartu ondoren.
- %30a, hiru hilabete igaro ondoren aurkeztu beharreko txostena aurkeztu eta onartutakoan.
- %30a, lan osoa aurkeztu eta onartu ondoren.

Ikerlanak sor ditzakeen gastuak bekadunaren kontura izango dira. Hala ere, Eskoriatzako Udalak laguntza eskainiko dio bere esku egon daitezkeen gestioetan.

## **9.- LANAREN JABETZA**

Lanaren jabea egilea bera izango da. Hala ere, Eskoriatzako Udalak eskubidea izango du ikerketa osorik edo zatika argitaratzeko. Kasu horretan, bekadunak uko egingo die egile eskubideei.

Eskoriatzako Udalak ikerketa lana argitaratzea erabakitzen badu, horren berri eman beharko dio egileari lana behin betiko jaso eta sei hilabeteko epean, eta bi urteko epean argitaratu beharko du. Epe hori igaroz gero, egileak bere kasa argitaratzeko askatasuna izango du, betiere, jasotako bekaren aipamena eginez.

## **10.- GORABEHERAK**

Eskoriatzako Udalak, beka esleitzerakoan gerta daitezkeen era guztietako gorabeherak erabaki ahal izango ditu, eta erabaki horien aurka ezingo da errekurtsorik jarri. Era berean, beka bertan behera utzi ahal izango du, onuradunak aurreko ataletan azaldutako eginbeharrak beteko ez balitu.

